# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 1400

*EBAZPENA, 2012ko martxoaren 2koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, letra bat zozketatuko dela iragartzen da, letra horrek zehaztuko baitu zein alfabeto-hurrenkera izango den 2012-2013 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan, bai eta urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere.*

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bitartez, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide horien 3. artikuluaren 5 atalak dioenez, berdinketa-kasuak konpontzeko azken irizpidea abizenen eta izenen araberako hurrenkera alfabetikoa izango da, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko da zein letratatik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztu egingo du ordezkogaiek zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogaia, ikasturtean zehar deitu daitekeen edozein hautatze-prozesutan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iragartzea 2012ko martxoaren 23an 10:00etan zozketa bat egingo dela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz). Zozketaren bidez zehaztu nahi da zein letra erabiliko den azken irizpide moduan berdinketa-kasuetan eta berdinketak desegiteko, 2012-2013 ikasturtean. Izan ere, letra horrek zehaztuko du nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan. Era berean, zozketaren emaitzak zehaztuko du zein hurrenkeratan parte hartuko duten izangaiek ikasturtean zehar egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 2a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.